

Galtzaundi

Tolosaldeko Herri Aldizkaria

11/4/1 | 341

🌀	Teknologia berriak ere euskaraz...
🌀	Laugarrenoz Ñañarri Rallysprinta
🌀	Peachy Joke, hirugarren diskoa kalean
🌀	Ibiur urtegia; Edaten dugun ura izerditzera



... hemen dator,
korrika

PREST
m
MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

ARETO
NAGUSIAN
*Etanri aurretik
izena eman!*

902 110 436

www.mondragon.edu/prest

ATE IREKIAK

Goi Eskola Politeknikoa

ARRASATE **APIRILAK 2**

larunbata, 11:00 *master akademikoa*

Enpresagintza Fakultatea

OÑATI **APIRILAK 2** larunbata, 11:00

IRUN **APIRILAK 9** larunbata, 11:00

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

ESKORIATZA **APIRILAK 14**

osteguna, 18:00



PLAN RENOVE LEIHOETAN



- ALUMINIOZKO LEIHOAK
- PVC - EZKO LEIHOAK
- DESKONTU BEREZIAK

943 69 84 39

NUTRIZIO AHOZKULARITZA



AMAIA ETXETXIPIA
BIOLOGA

KONDEKO ALDAPA, 5 B - 2ª ESKUBIA. TOLOSA. TEL. 679 934 888

DIETA PERTSONALIZATUAK

OBESITATEA

NUTRIZIO BEREZIKETA

HELDUAK ETA HAURRAK

EXPRES ESTUDIOA

- 3 argazki akordeoi eran 15x15
- Anpliazioa 30x40

69€

ESTUDIO BASIKOA

- 12 orriko albuma
- 10 oroiarri diptiko
- Anpliazioa 30x40

169€



www.ikatz.es

Jaunartzeak

FOTO IKATZ ORDIZIA - joxe miguel barandiaran 1 - ORDIZIA

tel. 943 027 435



Argitaratzailea: Galtzaundi Euskara Taldea.
 Helbidea: Nafarroa etorbidea,
 6-behea.
 20400 Tolosa (Gipuzkoa)
 Telefonoa: 943 655 004
 Faxa: 943 654 983
 e-posta: erredakzioa@galtzaundi.com
 Webgunea: www.galtzaundi.com
 Koordinazioa: Naiara Roldán de Aránguiz.
 Erredakzio taldea: Felix Aiestaran, Igor Mujika

Kolaboratzaileak: Joseba Antxustegietxarte, Txomin Garmendia, Garbiñe Biurrun, J. Agustin Arrieta, Antton Izagirre, Andoni Egia, Ibon Artola, Unai Igartua, Virginia Etxarri, Jone Otxoa-Aizpuru, Artubi elkarte, Bilgune Feminista, Amaia Etxetxia, Jone Gorostarzu, Iosu Iztueta, Txarli Gesteira

Publizitatea: Amaia Doyague
 Banatzaileak: Olatz Garmendia
 Juankar Arregi
 Idazkaria: Nora Olano
 Maketazioa: Zigor Agirrezabala.
 Diseinua: Zigor Agirrezabala
 GOITIK
 Azala: Galtzaundi
 Inprimategia: Antza.
 Tirada: 5.000 ale
 Lege gordailua: 55-906/91
 Frankeo Itundua: 37/94

GALTZAUNDI aldizkaria doan banatzen da Tolosaldeko 23 herri hauetako denda eta tabernetan: Abaltzisketa, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketza, Anoeta, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa.

Galtzaundik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



TOLOSAKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia
 Diputación Foral de Gipuzkoa

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren, Gipuzkoako Foru Aldundiako Kultura eta Euskara Sailaren, Kutxa Fundazioaren, Tolosako Udalaren eta Tolosaldeko hainbat Udalen laguntza jaso du.



KULTURA SAILA
 Hizkuntz Politikarako Sailburuordetza
 diruz lagundutako argitalpena



Erreportaia: ...hemen dator Korrika!

Apirilaren 13an berriro ere, bi urtez behin gertatu ohi den bezala, Korrika Tolosaldeko eskualdean izango dugu. Tolosaldeko herritarrek tipi-tapa, tipi-tapa euskararen testigua eskuarte hartu, pankarta atzean jarri eta euskararen alde eta euskaraz lasterketa erraldoi honetako parte hartzaile bihurtuko dira.

8-11. orrialdeak

Asvineneak antolatutako "Ahoz aho" nazioarteko ahazkotanaren jaialdian parte hartzera etorri da Bertrand N'Zoutani Tolosara. Kongo hegoaldekoa da izatez. Egun, ordea, frantziar Estatuan bizi da.

Elkarrizketa: Bertrand N'Zoutani

14-16 orrialdeak

	Iritziaren leihoa: Txomin Garmendia eta Zigor Agirrezabala	4-5
	Normalizazioa: Teknologia berriak ere euskaraz...	6-7
	Eskualdeko albisteak: Laugarrenegoz Ñañarri Rallysprinta	12-13
	Kultura: Peachy Joke, hirugarren diskoa kalean	18-19
	Bidean: Ibiur urtegia; Edaten dugun ura izerditzera	17

Eskerrak eman nai (2011'an)



Txomin Garmendia
Bertsolaria

4

1.-

Ala bearrez gaitzak datozte guregana indarrean, uste ez arren or gertatu naiz operatu bearrean. Oraindik ere ez naiz osatu nabil pauso baldarrean; baiña baditut laguntzailleak ez nago modu txarrean.

2.-

Min-zurriak asi zitzaizkidan ezkerreko belaunean, min oiek ugaltzen zijoazten denboraren joanean. Azkenerako gelditu nintzan zutik ezin egonean; sendagillea gogoratzen da bat orrela dagonean.

3.-

Sendagillearena joan nintzan, plakak zizkidan atera, da esan zidan: "Artrosiz degu zure belaunan galera". Sendabiderik ba ote zegon izan zan nere galdera; "Bai. Operatzea bakarrik dago da aleginduko gera".

4.-

Tolosan, Asunzion klinikan laister artu nun ostatu, egin zidaten arrera baiño oberik ezin eskatu. Operatzeko gorputza ondo aurrez bear zan prestatu; nere barrua lasaitu nai nun, iñola ezin asmatu.

5.-

Operazioko ordu ariek ain ziran ordu gordiñak, neretzat miñik etzuten arren sendagillen zer-egiñak. Maillu eta zerra otsak ziran arrubi bateko berdiñak; bazirudien arri-labratzen ari zirala argiñak.

6.-

Urtarrillaren azken eguna operatu nindutena, zortzi aldira etxera bidea izan zan artu nuena. Ondorenean ariketakin daukat nere jarraipena; esan zidaten ortik zegola geroko itxaropena.

7.-

Operazioz ondo ertetzea lenengo irabazia, Jaunari esker ori esateko gaur badaukat grazia. Operazio ta ariketaz nago osatzen asia; kukuak ekarriko omen dit osasuna ta bizia.

8.-

Aitortu bear pozez beterik itxaropentsu nagona, itxaropena galtzen danean galduta dago gizona. Da Andoainen jarri didate

ariketako leku ona; irakasle gizon jator bat Estanis deritzona.

9.-

Belaun orrekin aspalditxoan naiko kezketan nenguan, andi ta emendi aolku pranko ere entzuten genduan. Nai ez degula milla ikasbide sortzen zaizkigu munduan; txarra probatuz jakiten bai da onak zer balio duan.

10.-

Gaur sasoiko egonagatik biar eziñean gaude, gaitz danantzako ez egon arren sendabideak badaude. Adiskidea, nere antzera supritzen baldin bazaude; Asunzionera joan zaitea batere bildurrik gabe.

11.-

Asunzioneko sendagille, erizain da gaiñontzeko, guztiak juzkatutzen ditut nik zerutar batzun antzeko. Oien bearra izandua det ainbat naigabe kentzeko; arrazoirikan asko badaukat guztiak zoriontzeko.

12.-

Amabi bertso ipiñi ditut pozez eta atsegiñez, gogoraturik ainbeste jendek egindako alegiñez. Orain nik zer eman bear diet laguntza oien ordaiñez? Nere kezkarik aundiña da nola ordaindu jakiñ ez.



Zenbat buru, hainbat aburu

Badira urte batzuk Naguib Masfhouz-en liburuak irakurri eta Kairo ezagutzeko interesa piztu zitzaidala. "Hijos de nuestro barrio" eta "El callejón de los milagros" liburuetan igarritako kale jendetsu eta zaratatsuak bertatik bertara ezagutuko nituelako uste bizia nuen. Konturatzerako, oraindik gogoan nituen karrika horietan zehar ibiltzeko zoria izan nuen. Kotxez jositako errepideak, bozina-hots musikak, jendarteko ozen-hizketak, hiri kaotikoaren parte izateak sosegu sentsazio berezia sortarazten dit oraindik ere.

Otsailean hasitako herri iraultzak, berriro itzultzeko interesa areagotu eta bertaratzea eraman ninduen. Kairoren ohiko zalapartari doinuera berezia sumatzen zitzaion. Mubarak-en PND alderdiko belztutako egoitzaren parean, bozgorailua eskuan eztabaidara bildutako jendea zegoen. Trafikozain inprobisatuak nonahi, foiletoak partitzen zebiltzan jende tropa, facebook-ean atxikimenduak lortzeko helbidea soinean argazkiak ateratzen ari zirenak ere... Tahrir plazak, Egipziarren iraultzaren mugarri, askatasuna biziki irudikatzen du. Eraitsi dute Faraioai!! Eta orain zer?

Egipziarrekin solasaldi bat edo beste egiteko aukera izan genuen eta bi herrialdeon arteko ezberdintasunak agerikoak dira. Ezkertiarra izanik, bizimolde apalari eusten diot. Ingurugiroa errespetatuz, giza eskubideak eta berdintasuna bermatzearen aldekoa naiz es-

parru sozial, sexual,... eta baita erlijiosoan ere. Azken honetan kontrajarriak diren bi ikuspegiak talka egiten dute. Egipziar batzuek, hainbat herri musulmandarrek bezala, erlijioaren gainean ezartzen zaizkien arau zorrotzak babesten eta bultzatzen dituzte. Beharbada, Mendebaldetik datorren mehatsuari aurre egin nahian, beraien identitate kulturala babestuko duen trinxera gisa ulertzen dute. Honek eta komunikabi-



Zigor Agirrezabala
Diseinatzaile grafikoa



deek gatazka hauen inguruan hartzen duten jarrerak, europar ezkertiar askok anai musulmanak alderdiarekin bat etortzea ekartzen dute. Gure artean ezberdintasun ideologikoak egonagatik, oinarrikoenean bat egiten dugu, herri bakoitzaren autodeterminazio eskubidean.

Ezberdintasunetik berdintasuna eta berdintasunetik ez-

berdintasuna ere onartu behar dugu. Aniztasuna ulertu eta bermatu behar da herri oro libreki adierazi ahal izateko, inoren eta inolako murrizketarik gabe. Honek guztiak Mapuche, Kurdo, Saharai, Egipziar, Tuniziar, Bahreindar eta beste hainbat herriekiko nire atxekimendua berresten dit. Baita Euskal Herritarrona ere.

Teknologia berriak ere euskaraz...

Gipuzkoako Foru Aldundiak bere itzulpen datu basea erabiltzaileentzat eskuragarri uztea erabaki du. Bestetik, aritu.eu webgunearen bitartez hainbat esparrutan eta egoeratan euskara maizago erabiltzeko tresna lagungarria aurkeztu du Artez Euskara Zebitzuak. Eta azkenik, Euskalbar 3.9 Firefox 4 bertsiorako egokitua eta itxura berriarekin sarean erabilgarri jarri da. Teknologia berriek euskaraz hitz egiten digute.

Erredakzioa

Gipuzkoako Foru Aldundiaren itzulpen datu basea, libre

Gipuzkoako Foru Aldundiak bere itzulpen datu basea askatu eta eskumen publikoan jarzea erabaki du. Guztira 28.000 dokumentu kontsultatu ahal izango ditu erabiltzaileak, 520.000 bat itzulpen segmentu edo esaldi. Gehienak, gaztelaniaren eta euskararen arteko itzulpenak dira eta Creative Commons baimen batez zabaldu ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak.

2006az geroztik elikatutako datu basea askatzea erabaki du gipuzkoar erakundeak. Tresna honek UZEI Terminologia eta Lexikografia Zentroak

garatutako eLENA aplikazioa du oinarrian. Egindako itzulpenak datu-base dokumental batean biltegitzen ditu, itzulpen horien baitan bilaketa errazak egiteko aukera ematen du, bai eta itzulpenok modu selektiboan Ordenagailuz Lagundutako Itzulpeneko (OLI) tresnen bidez berrerabiltzeko ere. Itzulpen-memoriak hiru formatutan esporta daitezke itzulpen laguntzarako programaren arabera: Wordfast, SDL Trados edo testu soil tabulazioduna. Itzulpenen datu basea hurrengo helbidean eskuragai dago: www.gipuzkoa.net/ime-moriak.

Aritu.eu euskaraz aritu nahi duenarentzako webgunea

Aritu.eu web orrian hainbat esparrutan eta egoeratan euskara maizago erabiltzeko tresna lagungarriak eskaintzen zaizkio bisitariari.

Hizkuntza baten edo beste baten alde egiteko orduan, erabakigarriak dira askotan solaskidearen itxura edota solaskide horrekin topo egitean ingurunea eta egoera. Aukeraketa hori euskararen kaltetan izan ohi da gehienetan. Aritu.



Galtzaundiko Baz- kideei jakinarazten zaie apirilean 2011ko kuota kobratuko zaiela

eu-k jarrera aldatu eta euskararen erabilera modu naturalan garatzen lagunduko dio erabiltzaileari, egoera edozein dela ere.

Euskararen erabilera areagotzea du helburu gune honen, eta horretan trebatzen du erabiltzailea, esaterako, komunikazio-estrategiak eta trebetasun sozialak landuz. Egutero bizi ditugun egoerak dira gogoetagai: nola jokatu euskaldunen arteko bilera batean euskara hitz egiten ez duen norbait dagoenean; nola jo ezagutzen ez dugun pertsona batengana; nola saihestu aurreiritziak, etab. Hau guztia lantzeko zenbait test eta ariketa eginda, aritu eu webguneak euskararen aurrean egoera desberdinetan

erabiltzaileak duen jokabide eta jarre-
rak ezagutu eta horien inguruan hausnartzen lagunduko digu. Ondoren proposatzen diren test, galdera eta ariketei esker, konpromiso-maila aukeratzeko aukera dago. Aritu. eu-k zehaztutako helburuak erdiesteko zenbait baliabide eskainiko dizkio orduan erabiltzaileari.

Euskalbar 3.9: Firefox 4 bertsiorako egokitua eta itxura berriarekin

Firefox 4 berria garatu dela eta Euskalbar-eko arduradunak ere lanean jarri eta euskarazko hiztegi eta baliabideak kontsultatzeko sortutako aplikazioa egokitu dute.

Irakurle taldea, Apirileko tertulia

Eguna: apirilak 7, osteguna

Ordua: 19,30

Lekua: Tolosako Kultur Etxea

Irakurri beharreko liburua:
"Haragia"
Eider Rodriguez bertan izango da

Euskalbar Firefox-eko erabiltzaileek ez dute funtzionaltasun berri askorik aurkituko, izan ere bertsio honen lana Firefox berrira kodea moldatzea izan da. Hala ere, itxura aldaketak ere egin dira: itxura berria emanez bai aplikazioari bai webguneari ere.

Itxurari dagokionez, Euskalbarren ikono berria sortu dute, Elementary ikono-multzoan eta Zaldieroa letra-tipoan oinarritua. Ikono berritik abiatuta, webgune osoa eraberritu da. Euskalbarren bertsio berri hau Firefox 4 bertsiotik gora dutenek soilik erabili ahal izango dute.



Baserriko produktu naturalak
Mahala baserria • LEABURU
Tel.: 943 673 499



Osagaiak
Desarrolloak
Instalakuntzak

BUDARI KALEA 15-BEHEA TEL.: 943 650 199
TOLOSA (BIPUZKOA) FAXA: 943 653 916



INDUSTRIARAKO
HONIDURAK

Iparragirre auzoa, 1-behea
20400 Tolosa
Tel.: 943 673 726 • Faxa: 943 673 462



Mertzeria eta
konponketak

Zumalakarregi etorbidea, 7
TOLOSA



Arostegieta kalea, 2 - Tolosa

ANTZA

Maitatu, ikasi, ari...euskalakari!

...hemen dator Korrika!

Apirilaren 13an berriro ere, bi urtez behin gertatu ohi den bezala, Korrika Tolosako eskualdean izango dugu. Tolosaldeko herritarrek tipi-tapa, tipi-tapa euskararen testigua eskuartean hartu, pankarta atzean jarri eta euskararen alde eta euskaraz lasterketa erraldoi honetako parte hartzaile bihurtuko dira.

Naiara Roldán de Aránguiz

17. Korrika abiatzar da. Hamazazpigarren edizio hau apirilaren 7an, ostegunean abiatuko da Trebiñutik. Arratsaldeko 17.30ean kronometroa martxan jarri eta segundoz segundo euskararen aldeko metro eta kilometroak korritzen, elkarri testigua pasaz, lastertuko da Euskal Herriko biztanleria. Korrika parte hartzaile honek, hamar egun beranduago eta Euskal Herriko txoko ezberdinak zeharkatu ondoren, helmuga Donostian izango da apirilaren 17an, igandean.

Tolosaldean

‘Maitatu, ikasi, ari...Euskalakari’ leloa dagoeneko ikusgai dago Tolosaldeko herri ezberdinetan, pankartak zintzilikaturik daude herrietako enparantza,

kale, errepide eta eraikin ezezagunetan.

Tolosaldeko bizilagunek apirilaren 13an esnatu eta korrika aritzeko luzapenak goizean goiz egin beharko dituzte. Izan ere, ‘Maitatu, ikasi, ari... Euskalakari’ leloa ahoan dutela Irurako herritarrek gure hizkuntzaren lekukoa goizeko 06:55ean jasoko dute eta Anoetarrei 07:08 minututan pasako diete. Ondoren, lasterketa Tolosa eta Ibarrran 07:21etik 8:00etara izango da, 08:32 minututan Alegiara helduz. Ikaztegieta testigua hartzen eskualdeko azken herrira izango da. Ondoren euskararen lasterketak bere bigarrena ekingo dio Goierrri aldera, eguna Lea-Artibai eskualdean amaituz.

Maitatu, ikasi, ari... Euskalakari

Etenik gabeko korrikaldi honen edizioz edizio mezu bat zabaldu nahi izaten du herritarren artean. Aurten aukeratutako lema ‘Maitatu, ikasi, ari...Euskalakari’ izan da. AEK-ko ordezkariak mezuaren azalpena emateko orduan galdera luzatu zuten: “Euskal Herrian bizi dena euskal herritarra bada eta euskalduna euskaraz dakiena, nola deitu behar diogu euskara maitatu, ikasi eta erabili egiten duenari? Nola, euskaraz bizi denari?”. Erantzuna, beraz, 17. Korrikako leloak berak aurkezten duena da: Euskalakaria.

Hots, “euskara maitatu, ikasi eta erabiltzen duena. Euskara erabiltzeko helburuz, euskara maitatuz, euskara ikasi, eta ho-



betzeko ahaleginak egiten dituen. Horretarako urratsak ematen dituen" da AEK-ko ordezkarien arabera euskalakaria.

Euskalakari horren adibide ezberdin ugari daude Euskal Herri osoan eta kanpoan sakabana-turik: lehenengo hitza euskaraz egiten duen dendaria, euskaraz sortzen duen artista, euskaraz diharduen lantegiko enpresaria, euskara sustatzen duen herritarra, euskararen aldeko neurriak hartzen dituen herri-ordezkaria, euskaraz lan egiten duen kazetaria, kirolaria, iturgina... Erronka beraz, euskalakariak agerian utzi eta areagotzea izango da, Euskal Herri euskaldunaren helburua errealtate bihurtzeko.

Euskaltzaindiari korrikalarien omenaldia

Leloak euskararen jakintza mailan abiapuntua zeinahi dela ere, euskalakari guztiei erreferentzia egiten badie ere, aurtengo Korrikak ordea omenaldia Euskaltzaindiari egingo dio. Antolakuntzak "Euskaltzaindiak euskararen egitura linguistikoa eta gramatikala eraikitzeko egiten duen lanaren errekonozimendua" egin nahi dio honenbestez. Gehiago esanda, "euskalkiak bazter utzi gabe, euskara batuak euskararen biziraupenari eta erabilerari berari ekarri dien onura eta jendartearen eta bizitzaren esparru moderno guztietan izan duen eragina" egozten dio AEK-k Euskaltzaindiari.

Euskaltzaindiak 1919an sortu zenetik euskara babestea izan du helburu nagusi, hizkuntzaren normalkuntzarako arauak ezarri. 1968an hasi zen euskara batuaren arauak zehazten. Honakoa kontutan harturik, eta

besteak beste, "euskalduntze lana bere osotasunean ulertuta (corpus gramatikala, sustapena, irakaskuntza eta erabilera), euskararen batasuna erabakigarria eta ezinbesteko tresna" izan dela gogorarazi nahi du Korrika 17k, Euskaltzaindiak egindako lana omenduz.

AEK bera, bere sorkuntza garaira jo nahi izan du omenaldi honen bitartez; Helduen Euskalduntze Alfabetatzea eta AEK bera, Euskaltzaindiaren ekimez sortu baitziren.

11 egunez, 2.170 kilometroko lasterketa herriko honak Euskaltzaindiak urtetan eta urtetan egindako lana izango du gogoan. Aipatu behar da baita ere helduen euskalduntze alfabetatze elkarteak Mondragon Unibertsitateko Huhezi fakultatera jo zuela Euskaltzaindiari bestelako omenaldia egiteko nahiarekin. Horren fruitu 'Zenbait gazte ausart' film luzea da. Iker Ugalde, Ekaitz Herrera eta Alexander Silva ikasleek sortutako ikasketa amaierako dokumentala da, Aitor Zuberogoitia eta Iban del Camporen laguntzarekin jorratutakoa.

Tolosaldeko herritarrek 'Zenbait gazte ausart' ikus-entzunezkoa martxoaren 31n, Tolosako Kultur Etxean ikusteko parada izan zuten. Bertaratutakoek Euskaltzaindiaren, euskarabatuaren, alfabetatze mugimenduaren eta euskalkien gaineko informazioa jaso zuten 30 lagunen testigantzak medio -tarteetan besteak beste Joan Mari Torrealdai, Xabier Kintana, Miren Azkarate, Jean Haritzelhar, Andres Urrutia, Jose Luis Lizundia, Pello Zabala, Aizpea Goenaga, Karmele Jaio eta Xabier Mendigurenen hi-



'Euskalakari' abestia Gose

Korrikako abestietan atzera eginez norbera bere sentimendu eta gogorapenetan murgiltzen da, momentuko talde punta-puntakoek egindako kanta mitiko horiek gogora ekarriaz. Aurtengoan, Gosek izan du erronka. Talde honak jarriko die musika 2.000 kilometro horiei. Arra-

saten 2005ean sortutako taldeak, berezko soinuari heldu triki eta elektronika uztartuz abesti dantzagarria osatu du. 'Euskalakari' lema Euskal Herriko errepide eta kaleetan barrena entzungai jarriko du hirukoak, Ines Osinagaren ahots goxoaren gidaritzapean.

Mingain zorroztuak ginen
Zuri, hori, berde eta gorri ginen
Barakaldon beterano ginen
Arriskua ginen, erromeria ginen
Su iraultzaile ginen
Enpresari eta sindikatu ginen
Lesbiana, hetero, gay ginen
Gehiegi izan ginen, nahikoa ez ginen
Euskalakari izango gara!
Pausoz pauso, gelditu barik
Pausoz pauso, maitatu, ari...
Pausoz pauso, euskalakari!
Pausoz pauso...
Eserita zer itxoiten zenuen?
Beldurtuta, nekatuta ote zinen...
Trena pasa da ta zu begira hemen
Ukabila ginen eta hitza ginen
Euskalakari izango gara!
Pausoz pauso, gelditu barik
Pausoz pauso, maitatu, ari...
Pausoz pauso, euskalakari!
Pausoz pauso...

17 edizio, historia eaginez

2011ko honetan 17. edizioa ospatuko dela jakina da, baina hamazazpigarrena betetzeko, edozein ibilbidetan bezala, aurrekariek berebiziko garrantzia izan dute. Euskararen aldeko kontzientzia suspertzea eta gau-eskola zein euskaltegien eguneroko lana indartzeko dirua biltzea helburu dituen honak, 1980an Euskal Herria Oñatitik Bilbora zeharkatu zuen lehenengoz.

Duela 31 urte eta 16 edizio, egunez zein gauez, gelditu gabe korrikalarien artean euskarari bultzada emateko erronka sortu zen. 16 edizio eta gogorapen ugari beraz, ekar dezagun bada historia guregana.

1. Korrika

Data: 1980, azaroak 29-abenduak 7

Hasiera-helmuga: Oñati-Bilbo
Leloa: "Zuk ere bai euskarari"

2. Korrika

Data: 1982, maiatzak 22-30

Hasiera-helmuga: Iruñea-Donostia

Leloa: "AEK, euskararen alternatiba herritarra; Korrika, herriaren erantzuna euskararen alde"
Omendua: Ricardo Arregi

3. Korrika

Data: 1983, abenduak 3-11

Hasiera-helmuga: Baiona-Bilbo

Leloa: "Euskaraz eta kitto!"

Omendua: Gabriel Aresti

4. Korrika

Data: 1985, maiatzak 31-ekainak 9

Hasiera-helmuga:

Atharratze-Iruñea

Leloa: "Herri bat, hizkuntza bat"

Omendua: Piarres Lafitte

5. Korrika

Data: 1987, apirilak 3-12

Hasiera-helmuga:

Hendaia-Bilbo

Leloa: "Euskara, zeurea"

Omendua: Balendin Enbeita

6. Korrika

Data: 1989, apirilak 14-23

Hasiera-helmuga:

Iruñea-Donostia

Leloa: "Euskara korrika eta kitto. Euskal Herriak AEK"

Omendua: Jose Migel Barandiaran

7. Korrika

Data: 1991, martxoak 15-24

Hasiera-helmuga:

Gasteiz-Baiona

Leloa: "Korrika euskara, euskaraz Euskal Herria"

Omendua: Remigio Mendiburu

8. Korrika

Data: 1993, martxoak 26-apirilak 4

Hasiera-helmuga: Iruñea-Bilbo

Leloa: "Denok maite dugu gure herria euskaraz"

Omendua: Martin Ugalde

9. Korrika

Data: 1995, martxoak 17-26

Hasiera-helmuga:

Donibane Garazi-Gasteiz

Leloa: "Jalgi hadi euskaraz"

Omendua: Mikel Laboa

10. Korrika

Data: 1997, martxoak 14-23

Hasiera-helmuga:

Arantzazu-Bilbo

Leloa: "Euskal Herria korrika"

Omendua: Luis Villasante

11. Korrika

Data: 1999, martxoak 19-28

Hasiera-helmuga:

Iruñea-Donostia

Leloa: "Zu eta ni euskaraz"

Omendua: Honako edizioan omendu bakarra egon beharrean 11. edizioa zela eta hamaika laguni omenaldia egin zitzaizen: Pedro Migel Etxenike, Jose Ramon Etxebarria, Jose Angel Iribar, Maitena Araguas, Etxepe enpresa, Mendia optika, Laudioko ikastolaren sortzaile taldea, Argiñe Iturregi, Euskalherria irratia, Arantzazu herria eta Maiatz taldea.

Omendua: Luis Villasante

12. Korrika

Data: 1999, martxoak 19-28

Hasiera-helmuga:

Iruñea-Donostia

Leloa: "Zu eta ni euskaraz"

Omendua: Honako edizioan omendu bakarra egon beharrean 11. edizioa zela eta hamaika laguni omenaldia egin zitzaizen: Pedro Migel Etxenike, Jose Ramon Etxebarria, Jose Angel Iribar, Maitena Araguas, Etxepe enpresa, Mendia optika, Laudioko ikastolaren sortzaile taldea, Argiñe Iturregi, Euskalherria irratia, Arantzazu herria eta Maiatz taldea.

Omendua: Luis Villasante

13. Korrika

Data: 2003, apirilak 4-13

Hasiera-helmuga:

Maule-Iruñea

Leloa: "Herri bat geroa lantzen, korrika"

Omendua: 60-70 hamarkadetan euskara eta euskal kulturari ekarpen garrantzitsua egin zion mugimendua

Omendua: Luis Villasante

14. Korrika

Data: 2005, martxoak 10-20

Hasiera-helmuga:

Orreaga-Bilbo

Leloa: "Euskal Herria euskalduntzen. Ni ere bai"

Omendua: Andolin Eguzkitza

15. Korrika

Data: 2007, martxoak 22-apirilak 1

Hasiera-helmuga:

Karrantza-Iruñea

Leloa: "Heldu"

Omendua: Euskal emakumeak

16. Korrika

Data: 2009, martxoak 26-apirilak 5

Hasiera-helmuga:

Tutera-Gasteiz

Leloa: "Ongi etorri euskaraz bizi nahi dugunon herrira"

Omendua: Euskaldundu eta euskara bultzatutakoak

Omendua: Luis Villasante





Tolosa 08:00:25

Alegia 08:32:55

Ikaztegieta 08:45:55



tzak-. Apirilaren 7an Amezketan dokumentala ikusteko aukera berria egongo da.

Korrikaren baitan bestelako ekitaldiak

Unitate didaktikoak eta Korrika Txikia. Euskararen festa hau, adin eta mota guztietako milaka korrikalariei zuzendurik dagoela gauza jakina da, baina haur eta gazteentzat propio sortutako ekimenak ere baditu. Unitate didaktikoak horren adibide dira, adin tarte guztietako ikasleei hamar egunez luzatuko den Korrika lasterketaren inguruko materiala eskainiko zaie. Euskal Herriko eskola eta ikastoletan Korrikaren mezua zabaltzeko tresna baliagarria dira unitate hauek. Tolosaldeko

irakasleek beraz Ikastolen Elkartea eta AEK-Korrikak elkarlanean sortutako material hau eskuragarri izan dute euren Korrika Txikia prestatzeko garaian. Eskualdeko gaztetxoek lasterketa Korrika nagusiaren ondoren ospatuko da. Korrika Txikia, apirilaren 13an, asteazkenean abiatuko da Tolosako Triangulotik goizeko 10.00etan hasita.

Korrika laguntzaile txartela. Urtarrilean abiatutako ekimena bada ere, oraindik orain, aukera badago Korrika laguntzaile izateko. Korrikari 12 euroren truke babes emateaz gain, laguntzaile izatearen pina jasoko dute eskatzaileek, Euskal Herriko ehunka komertziotan beherapenak izatea ahalbidetuko

dien txartelarekin eta komertzio hauen zerrenda erakusten duen katalogoarekin batera.

Hona hemen Korrika Batzordeak *Tolosalderako egun hauetan antolatutako ekitaldiak*: martxoaren 28an, Korrikaren aurkezpena Lizardi elkartearen ospatu zen; apirilaren 2an, larunbatean, Korrika materiala saltzeko postua jarriko da Tolosako Triangulo Plazan eta apirilaren 10ean Amezketan korrikaren aldeko goiza eta Alegian hamaiketako.

Helmuga: Donostia

Korrika festak, ordea, Donostian izango du jarraipen eta helmuga. Apirilaren 17an, hamaika egunez, kilometroz kilometro korrika ibilitako euskaltzale guztiak Donostia izango dute helmuga. Bertan 12.00-tatik hasita iluntzea bitartean kontzertu, ekitaldi, kirol erakustaldi eta ekintza ugari eta ugari egongo dira. Euskalariet zertan gozatu erabakitzea izango dute eguneko zailtasun handiena: Gose, Esne Beltza, Zesateki, sukaltzeria, Taupada Sanba Taldea, tonbola, triki-txotx, xiba herri kirolak, artisau erakusteta, puzgarriak, joko gidatuak... eta beste hamaika ikuskizun. Apirilaren 17an, Donostia euskalakarion festa. ☺

matilda
zure moda osagaien denda

Korreo Kalea, 3
Tolosa

GORRI

Paper manipulaziorako
makina eraikuntza
Konponketa
eta mantenimenduak

Apatta industrialdea.
Baratzondo D 26. Ibarra
Tel.: 943 671 590.
Faxa: 943 673 916

SANZ
arraindegia

Tel.: 686 98 21 74
943 65 17 85

Gozotegia

Okindegia

ECEIZA

P. Gorosabel, 34 - Telf. 943 655 161 - San Francisco, 8 - Telf. 943 651 916



Apirilaren 9a, larunbata

Laugarren goz Ñañarri Rallysprinta

2008an Irurako Ikastolari Kilometroak festaren antolakuntza egotzi zitzaionean rally bat atontzeko burutazioa izan zuen, diru-iturri gisa. Aurten ideia horren laugarren edizioa ospatuko da; Alegia, Orendain, Abaltzisketa eta Amezketako errepidetik barrena Irurako Ikastolaren gidaritzapean, Hondarribiko Sardara Motor Elkartearen laguntzaz.

Naiara Roldán de Aránguiz


Irura Ikastola Kooperatiba Elkartek IV. Ñañarri Rallysprinta ospatuko du datorren apirilaren 9an, larunbatean. Aurreko edizioetan bezala proba Rallysprint Txapelketarako puntuagarria izanik bertan punta-puntako pilotu zein kotxeen parte hartzea izango da. 10 km. eta 350 m.-ko ibilbidea "txapelketa orokorreko rallysprintik osoena eta interesgarriena da" antolatzaileen esanetan. Izan ere, ibilbideak autoei abiadura handia hartzeko aukera ematen die, gainera bihurgune itxiak izanik ikuslearen gozamenaren areagotzen dute.

Xabier Saizar-ek, Irura Ikastolako Zuzendariak, aitortu duenez rallysprinta antolatzearen zergatia helburu ekonomikoetan oinarriturik darrai. Sarrera-

gatik ordaindutako 8 euro horiek Irura Ikastola Kooperatiba Elkartearentzat diru-iturri garrantzitsua dira. Honek 2008an Kilometroak festan eskuratutako diruaren bitartez eraikitako Lehen Hezkuntzara zuzendutako eraikin propioa ordaintzeko laguntza da.

Lau urte hauetako ibilbideaz galdetuta "esperientzia onaz" hitz egin du Xabier Saizar-ek. Hala ere, eguraldiak eragin handia izaten du jendea gerturazeko orduan. Bestalde, urteen poderioz gero eta errazagoa izaten da ekitaldiaren antolamendua. Xabier Saizar-ek "hasierako urte hartan dena berria izan zen, funtzionamenduaz ezer gutxi genekien" aitortu du.

Hala ere, antolakuntza siste-



ma errazagoa eta ezagunagoa egiten bazaie ere, laguntzeko jendearen beharra erabatekoa da. Tankera honetako ralliesprint baten antolakuntzak 200 bat lagunaren parte hartzea eskatzen du, -besteak beste, komisario, sarrerak, trafiko lanak, montajea, garbiketan, kartelen "pegadan" lanean aritzeko-. Hori dela eta Ikastolako zuzendariak eskerrak eman nahi izan dizkie urtetik urtera lagundutakoiei eta bestetik aurten antolaketan parte hartzeko eskaera ere luzatu du.

Rallya bera apirilaren 9an, larunbatean, ospatuko bada ere, aurreko asteburuan, apirilaren 2an eta 3an, pilotuek entrenamenduak burutuko dituzte. Entrenamendu hauek antolatuzaileek kontrolatuak izango dira eta abiadura normalean egingo dira. Hori dela eta, aipatu bi egun horietan trafikoa gehituko da Alegia-Orendain -Abaltzisketa-Amezketaren errepidean.

Herri hauetako herritarren laguntza ere ezinbestekoa da, bertako bizilagunek hoberen ezagutzen baitute zonaldea. Baina Irura Ikastolako langile eta gurasoen laguntzarik gabe proba hau antolatzea ezinezkoa litzateke.

Urtero gisa 70 bat kotxearen parte hartzea espero dute antolatuzaileek. Kotxe horien gidaritza momentuko piloturik trebenei dagokie, izan ere karrera Rallysprint Txapelketarako puntuagarria izango da. Hasierako urtetik horrela mantendu da gainera. Irurako Ikastolak ralliesprinta antolatzeko nahia erakutsi zuenean jasotako aurreneko gomendioa

Euskadiko Federazioarekin harremanetan jartzea izan zen, proba txapelketa barruan kokatzeko pausuk ezagutzeko helburuarekin. Hastapenetako erronka hura aurreneko momentutik eskuratu eta horrela mantendu dute lau edizio hauen joan-etorrian.

2011ko aldaketa nagusia

lazko karreraren norantza aldatu egin da eta hasierako bi edizio horietako norantza itzuli nahi izan dute antolatuzaileek Federazioaren oniritziarekin. Iaz Abaltzisketako plazan egin zituzten lanak izan zirela



medio ibilbidearen zentzua aldatzea erabaki zen. Hausnarketa eginda, haserako norabidea itzultzea erabaki dute ordezkariak. Beraz, esan bezala pilotuak Alegiatik atera, Orendain igaro, Abaltzisketatik pasa eta Amezketan amaituko dute manga bakoitza.

Irurako ordezkariak aitorutakoaren arabera: "iazko rallyaren ondoren egindako hausnarketan, hainbat pilotu eta Federazioaren esanetan,

abiadura handiagoa hartzen omen da iazko norabidean. Arrazoi honengatik aldatu dugu zentzua: denontzat seguruen zentzua den erabaki nahi izan dugu".

Hainbat datu

Pilotuek euren kotxeen egiaztapenak 08.30-12.00 bitartean

burutu beharko dituzte Alegia-ko Bazurka industriagunean, izan ere, bertan kokatuko da atoi parkea eta parke itxia. Errepidea apirilaren 9an, arratsaldeko 14.00etan itxiko bada ere, Larraiztik 12.00etan itxiko zaio trafiko arruntari.

Karrera 15.00etan hasiko da Alegiatik eta 20.00ak aldera amaituko da. Legezko kontaktak burutu ostean, sari banaketa Amezketako plazan txalotu ahal izango dute bertaratutakoek. 6

Beti Nahi
galtzaundi

Garaian garaiko janariak eta arraikieta bereziak

Tel.: 943 671 920
Errementari kalea, 16 • 20400 Tolosa

ERLOJUTEGIA - BITXITEGIA

Foruak, 5-bis • TOLOSA
Tel.: 943 652 712

euskararen
semaforoa
euskararensemaforoa
blogspot.com

Arteka

ESKULANAK


Nafarroa etorbidea, 10
TOLOSA
Tel.: 943 655 577

Bertrand N'Zoutani

“Nire herriaren memoria azaldu nahi dut”

Asvineneak antolatutako “Ahoz aho” nazioarteko ahozko-tasunaren jaialdian parte hartzera etorri da Bertrand N'Zoutani Tolosara. Kongo hegoaldekoa da izatez. Egun, ordea, frantziar Estatuan bizi da. Griot-a da Bertrand N'Zoutani. Historialariak, genealogistak, kontalariak, ahozko kazetariak eta dantzariak dira griot-ak eta, ondorioz, beren herriaren historiaren transmisioaz arduratzen dira, besteak beste. Herriko nagusiaren eta aztiaren adinako garrantzia dute griot-ek beren herrian. Ikerlari batek hala esan zuen: “griot bat hiltzea liburutegi oso bat erretzea bezalakoa da”. Izan ere, ahozko-tasunak izugarrizko garrantzia du Bertrand N'Zoutaniren herrian, ahoz aho transmititzen delako historia, kontatzen direlako berriak,... eta ahozko-tasunarekin ere harremantzen direlako hilen munduan diren beren arbasoekin. Horretarako, ordea, hitzaz gain, dantza, musika,... ere erabiltzen dituzte. Horren erakusle izan ohi dira Bertrand N'Zoutanik eskaintzen dituen emanaldiak.

Igor Mujika



Hitzak zein balio du zuretzako?

Hitzak izugarritzako balioa du. Hitzak pertsonak hezitzeko balio du baina baita pertsonak sufriarazteko ere. Norbaiti min egin nahi diona hitzez hasten da min hori eragiten, eta, horrenbestez, beste pertsona sufriarazten. Guretzako hitza sendatzeko bidea ere bada. Horregatik guztiagatik, hitza erabiltzen duenak hitza kontrolatzeko jakinduria izan behar du.

Eta, gezurra zer da zuretzako?

Gezurra makillatutako edo ezkutatutako egia da. Nor edo nori min egin nahi ez diodan erabiltzen dut gezurra. Mendebaldean ere ongi hezituek gezurrekin zerbaitebaste diote egia ondorio onak lortu nahian.

Ipuinek zein funtzio betetzen dute?

Ipuinek, batetik, umeak hezitzeko funtzioa betetzen dute gure herrian. Guk ipuinak komunitate osoarentzako kontatzen ditugu, hau da, gure herriko emanaldietan publiko guztiarentzako ipuin bera kontatzen dugu. 5 urteko haurrek gauza bat ulertzen dute, 10 urtekoek beste bat,...

Urteetan aurrera joan ahala edukiaren ulermenean sakonduz joaten dira entzuleak. Ondorioz, 50 urterekin 'begira, ipuin honetatik oraindik hori ez nuen ulertu' esaten dute, 5 urtetatik entzun duten ipuina berriz entzun ostean.

Nork erakutsi dizkizu emanaldietan eskaintzen dituzun ipuinak?

Nire amak kontatzen zizkidan txikia nintzenean. Nire ama ere kontalaria zen eta komunitate osoari eskaintzen zizkion kontakizunak. Nire aita, osaba, aitona, musikiariak ziren. Gurasoengandik ikasten den lanbidea da.


Mbongia zer den azalduko al zeniguke?

Herritarrak -haur eta helduak- ikasteko, ondoko herrian gertatu denaren berri izateko, biltzen diren gunea da. Esaterako, non edo non zer edo zer gertatutakoan herritarrak jakinminez espontaneo-ki elkartu egiten dira eta herriko kontalaria berriak emateaz arduratzen

da. Ipuinak kontatzeaz gain kontalariak genealogistak, historialariak, izaten dira eta beraiek arduratzen dira inguruko berriak zabaltzeaz ere. Kontalariak griot deitzen zaie eta dantzatzen, kantatzen eta, gutxienez, instrumentu bat jotzen jakiten dute. Herriarekin komunikatzeko erabiltzen dituzte bitarteko horiek guztiak. Beraz, historialariak, genealogistak, kontalariak, ahozko kazetariak eta dantzariak gara griot-ak. Tradizionalki garrantzitsuena historialaria da eta tribuko nagusiarekin batera egiten du lan. Gure historia ez dago ezer idatzia eta bera arduratzen da herriaren historia herriarrei transmititzeaz. Tribuko nagusiak eta aztiak bezainbesteko garrantzia izaten dute historia transmititzeaz arduratzen diren griot-ek. Afrikako kultura ikertu duen ikerlariren batek gazteek helduen pare jartzeko eta beraien memoria guztia bereganatzeko kontu handia izan behar dutela dio, katea eten ez dadin. Izan ere, griot bat hiltzean liburutegi oso bat erretzean bezainbesteko informazio joaten da berarekin.

jarri zure
publizitatea
Galtzaundi
aldizkarian

Nafarroa etorbidea, 6
20400 Tolosa
publizitatea@galtzaundi.com
943 655 004
www.galtzaundi.com



15



ARTE
TAILERRA

HAURRAK ETA HELDUAK

Matrikula zabalik

Tolosa - Kale Nagusia, 16
Tlf. 677 340 685

ZABALA
DESGUAZEAK
KUDEATZAILE BAIMENDUAK
EU2/11/04



BEOTIBAR INDUSTRIALDEA, 18 - BELAUNTZA
TEL./FAXA: 943 671 790 -
MUGIKORRA: 696 593 347

Zein da zuen hizkuntza kikongo-ren egoera?

Galtzen ari da. Helduek kikongoz hitz egiten jarraitzen dute.

Gazte batzuek ere kikongoz hitz egiten dute. Are gehiago,



go, kikongo-a bultzatu nahian lanean ari dira gazte batzuk eta nire emanaldiak bertan eskaintzera gonbidatu izan naute helburu horrekin. Kongon hizkuntza ezberdinak daude. Ni hegoaldekoa naiz eta kikongoz hitz egiten dut. Iparraldekoek, ordea, ez dute kikongoz hitz egiten. Ondorioz, gure artean komunikatzeko frantsesera jotzen dugu.

Kolonizazio garaian nola eutsi zenioten hizkuntzari?

Gure hizkuntzan hitz egitea debekatua genuen ikastetxeetan,... Etxean, ordea, kikongoz hitz egiten jarraitu genuen.

Memoria historikoaren transmisioak zenbateraino?

noko garrantzia du zuretzako?

Memoria historikoaren transmisioa behar-beharrezkoa da eta, nire emanaldien bitartez, nire herriko memoria historikoa transmititzen saiatzen naiz nire herriaren berri izan dezan ikusleak. Kolonizazioaren ostean, gure herriko eskolek,... mendebaldeko kutsua hartu dute. Lehen, gurasoengandik seme-alabetara pasatzen ziren lanbide hauek, baina orain pixkana-pixkana kate hori apurtzen ari da.

Horrek kezkatu egiten al zaitu?

Bai. Nik bost seme-alaba ditut. Guztiek dituzte musika jakintzak eta alabetako batek nire bide bera jarraitu nahi zuen. Zailtasun ekonomikoak medio, ordea, beste bide batzuk hartu dituzte eta orain arte gure familian gurasoengandik seme-alabetara pasatzen den katea apurtu egingo da.

Zure herriaren definizio bat emango al zeniguke?

Oso urrutitik gatozen herria gara. Asko ibili gara, bizitzeko beharrezko diren belarra eta ura zituen lekua bilatu eta bertan gelditzea erabaki genuen arte. Errekara iritsi ginenean Kongo izena eman genion. Ni errekararen hegoaldean dagoen lur eremuko naiz, Kongo hegoaldekoa, beraz.


Zer da izpiritueltasuna zuretzako?

Gu animistak gara. Familiako nagusia hiltzen denean, familia babesten duen izpirituaren bilakatzen da. Arazoren bat izandakoan, berarengana jotzen dugu. Hilik dauden familiako helduenen objektuak etxola batean gordetzen dira.

Arazaok ditugunean etxola horretara joaten gara eta etxola barruan pentsatzeko kantuek kantatzen ditugu. Gure arbasoekin komunikatzeko makillatu egiten gara. Kolore txuriak gure arbasoekin komunikatzeko bidea irekitzen digu. Odolaren kolore gorria ere ematen dugu aurpegian, heriotza eta bizitza lotzen dituelako. Instrumentuek ere griot-arentzako funtzio jakinak dituzte eta horren adibide da Parisa bizitzera etorri nintzenean gertatu zitzaizkidan: nire aitona pluriar-koa jotzen zuen. Tradizionalki, griot-ak instrumentu hau gaixoak bisitatzeko bakarrik jotzen du, gaixoentzako sendagai modukoa delako. Nire aitona instrumentu hori jotzeko gai izango al nintzen galdetu zidan. Nik baietz erantzun nion eta aitona instrumentua jotzen erakutsi zidan. Bizitzera Parisa joan nintzenean instrumentu hori ere nirekin eraman nuen. Baina ezin izaten nuen jo! Zergatik? Nire herriko tradizioa apurtzen ari nintzelako, instrumentu hori gaixoen aurrean bakarrik jotzen delako. Instrumentua jotzen hasten nintzenean ezintasun fisikoa sentitzen nuen! Askotan saiatu ostean lortu dut jotzea. Izan ere, denok gaude zertxobait gaixo, ezta?

Griot-ak beraiek arduratu ohi dira beren instrumentuak egiteaz?

Hala da. Griotek, normalean, beraiek egiten dituzte instrumentuak, instrumentuaren eta beraien arteko harremana sortu eta jasotzeko. Nik, ordea, Frantzia ez dut nire instrumentuak egiteko material egokirik.




Bi hitz: Kongoko Errepublika Demokratikoa

Kongoko Errepublika Demokratikoan 240 hizkuntza baino gehiago hitz egiten dira eta horietatik 4k baino ez dute hizkuntza nazionalaren estatusa: kikongoak, lingalak, tshilubak eta swahilik. Frantsesa da Estatuaren hizkuntza ofiziala eta talde etniko ezberdinen arteko hizkuntza neutral bezala erabili nahi da.

Kongoko Errepublika Demokratikoan ehunka etnia eta, beraz, bizitzeko modu daude. Kolonizazioaren ondorioak

jasan dituzte aipatu etniek, besteak beste, beraien bizitzeko modu tradizionalen baina hala eta guztiz ere, beraien identitatea mantentzea lortu dute.

Griot-ak tribuko genealogiak eta ahozko tradizioak babesteaz arduratzen dira, besteak beste, eta berebiziko garrantzia dute idatzizko hizkuntza gutxiengo batek baino menperatzen ez duen herrietan. Tribuko nagusiak eta aztiak bezainbesteko garrantzia izaten dute.



Iosu Iztueta
Bidaiaria

Bidean

Ibiur urtegia; Edaten dugun ura izerditzera

Tolosaldeko ur-horniduraren arazoari erantzuna emateko asmoz proposatu zen Ibiur urtegia. Lanak 2005ean hasi ziren, porlanezko 65 metro ditu presak altueran, 230 metro luzeran eta goiko aldean 9 metroko zabalera. Gainera pasoa dagoenez hantxe erabakiko dugu ibilbide zirkularra zein norabidetan egin, neuk erlojuarena aukeratu nuen. Izerditan zetorren 60 urte inguruko gizon bati zenbatero luzera zuen galde-tu nionean: "ordu ta hamar minutun egin diat nik" erantzun zidan, baina "lasai junezkeo ordu t'erdin patxada earren ingoek", igande goizeko giroa aprobetxatuz ez nintzen paseotxoia egin zuen bakarra. Txindoki mendia, piramide erraldoiaren formaz ikusten da hemendik. Oraindik elur mantxak ditu Aralarrek, baina urtzen direnean, Ibiurreko ur izango dira.

Presak gainetik gurutzatu eta eskuinera joko dugu, "todouno" pista zabala da ia ibilbide osoan, korrikalariren batek, pintura berdez margotu ditu kilometroko bide bazterrean. Erreferentzi bezala balio dute. Ibilbidea nahiko laua da orokorrean, baditu aldapa pare bat hauspoa mugiarazten dutenak, baina ezer gutxi. Sasoiak zer ikusi badu, noski, bete-bete

eginda zetozen senar-emazte batzuk gurutzatu ditut, diosala juxtu antzera luzatu didate, azkartxo zetozen nire usterako baina hemen eta edonon bakoitzak bere erritmoa aukeratzen du.

Baliarrain eta Orendain arteko haran honetan Ibiur izeneko erreka bat zegoen/dago. Haren urak gehi inguruko beste errekatxo batzuenak dira pixkanaka pila-tzen ari direnak.

Ibilbidean zehar ikusi/entzun-gotutugu ezker mendi magaletik datozen urak, eskuinean urtegiko ur azala ibilbidearen puntu bateraino, une horretan, ibiur txikia IBIUR handia egiten da! Uraren mailak, gaurkoz beste 15 metro baino gehiago behar ditu presan gainezka egiten duen punturaino iristeko, baina porlan koloreak eta ur bazterreko landareek begi bistan uzten dute orain baino bost metro gorago arte egon dela beteta.

Juxtu itzuliaren urrutieneko parajeen zubia dago erreka gainetik. Handik zuzen hartuko da Larraitzeraino aurrikusia dagoen oinezkoen bidea. Guk bueltakoa jarraituko dugu, alde honetatik ederki ikusten da Orendain herria. Begira egon naizen arren, ez dut urak azpian hartutako hiru

baserriren arrastorik ikusi.

Bosgarren kilometroko marka pasatu eta gutxira lubizi batekin egingo dugu topo, 20 metroko zabalera badu eta pista aldetik aldera mozten du. Ibilbide osoan lokaztuta dagoen puntu bakarra da hau. Bitxia da, beldurgarria ez esateagatik, 200 metro goragoko belardi batetik nola jaitsi diren belar bolak arrastan honaino. Handik gutxira, gaurko txangoan izango dugun aldapa luzeena daukagu aurrean, Baliarrain herrira doan errepideraino igo beharko baitugu, behin asfaltoaz zapalduz gero, eskuinera hartu eta bazter bazteretik hormigoizko hormatzar-raino. Esandakoa, lasai-lasai ibiliz gero bi orduz azpiko ibilbidea da urtegikoa. Izerdi askorik bota gabe eta egarriak penatu gabe egiteko modukoa.

6 milioi metro kubo ur kabitze-ko ahalmena du Ibiur urtegiak eta 60.000 biztanleren ur beharrak bete ahal izango dituela diote agintariek. Gipuzkoako ur horniketan azken azpiegitura handia izan da Ibiur. Goiza pasa eta etxera iritsi naizenean Gipuzkoako Ur Kontsultazioaren fakturari errepartzeko tentazioa izan dut. URA hiru kontzepturen arabera ordaintzen da: Ura bera, arazketa


Tolosaldean azken hamarkadan asko hitz egin da IBIUR urtegiari buruz, gehienok entzun bai baina gutxi eza-gutzen dute IBIUR. Hara egingo dugu gaurko txangoa.

eta saneamendua. Kontutan izan behar da ere, kuota finko bat ordaintzen dela eta beste bat kontsumoaren arabera.

Metro kuboak (1.000 litro), aipaturiko hiru kontzeptuengatik, euro bat balio du gutxi gora behera. Garestia? Taberna, kafe-tegi, txozna edo dena delakoan, litro erdiko botilatxoak euro bat balio izatea bai dela disparatea! Gipuzkoar bakoitzak bataz beste 120 litro kontsumitzen ditu egunero.

Tolosaldeko gehienoi Ibiurtik etortzen zaigu gaur egun ura. Iturrikoa/kanilakoa/grifokoa deitu izan diogu guk etxean ur horri.

Bi heren garen ura neurri handi baten hangoa da.

Presarik gabe joan eta hura ezagutu. 

Asian Tiger Mosquito

Peachy Joke, hirugarren diskoa kalean

Duela urtebete Bartzelona euren bizi eta lanerako toki ezarri zuten tolosarrek. Asian Tiger Mosquito kaleratu berri dutela eta Galtzaundi Peachy Joke taldeko Lemy eta Gere-rekin elkartu da. 2011. urte honek eskainiko dienaz hitz egin dugu beraiekin eta baita 60. eta 70. hamarkadarako doinuetara eramaten gaituen euren lan berriaz ere.

Naiara Roldán de Aránguiz

Asian Tiger Mosquito. Galdera ezinbestekoa, izenburua nondik?

Bartzelonan udaran moskito plaga bat egoten da, eltxo horren izen zientifikoa Asian Tiger Mosquito da. Egunerok lokalera entseatzera jaisten ginenean hogeita mila pikadurekin azaltzen ginen. Horregatik izen hori jartzea erabaki genuen, disko horren zati bat zela irudikatuz.

60-70. hamarkada horretara garraiatu nahi izan duzue entzulea, zerk erakartzen zaituzte gehien garai horretatik?

Guk gustuko dugun musika da baina musika modernoa ere gustatzen zaigu. Normalean esaten digute jotzen duguna 70.hamarkadakoa dela.

Agian ez da hori bilatzen goazena, 60-70. hamarkadako musika-soinu hori gustatzen zaigu baina gaur egungo musika ere egiten dugu, bietatik aterako nahasketa da guk egi-

ten duguna. Talde bezala gaur egungo musikarien artean The White Stripes edo Mando Diao taldeen influentzia jasotzen dugu eta betikoen artean Jimi Hendrix, The Who, Led Zeppelin, The Beatles...koka daitezke gure erreferentzien zerrendan.

Hirugarren diskoa dagoeneko kalean, promozio lanetan murgildurik zaudete, nolakoa da lan hori?

Aste honetan bertako komunikabideetan elkarrizketak ditugu. Azkenean, entseatu beharrean promozio lana tokatzen zaigu. Bestela, egunean ordu pare bat entseatzen ditugu...

Talde txiki batentzat horrelako promozioak garrantzitsuak dira. Askotan irratietan azaltzeko ordaindu behar da... Bertako komunikabideen laguntzarik jaso ezean oso zaila egiten da. Bartzelonan berdinean jokatu behar dugu, elkarrizketa eta promozioa eskatzeko deitu

behar izaten dugu.

Zer nolako balorazioa egiten duzue 3 disko hauen arteko ibilbideaz?

Aipatu beharreko aurreneko kontua taldea musikariz aldatu dela da; hasieran lau musikari ginen eta orain hasierakoe-tatik hiruk jarraitzen dugu, bi pertsona berri sartu dira, orain, beraz, bost taldekidez osatutako banda dugu. Horrek bai instrumentalki zein konposatzeko orduan ere aberastu egiten du taldea.

Horretaz gain, kantak egiten asko ikasi dugula esan beharra dago. Azkarrago sortzen ditugu. Hasieran ideia bat genuen eta ideia hori abesti bihurtu arte zaila izaten zen... Gaur egun, kanta bat bizpahiru egunetan lortzen dugu, ondoren noski moldaketak egin behar zaizkio. Musikari bezala asko irabazi dugu, abestietan ere antzematen da. Orain badakigu zer egin nahi dugun eta ho-

rren bila goaz. Hastapenetan ia zer ateratzen zenaren zain egoten ginen.

Nolakoa izan da disko honen irudia sortzeko prozesua?

Jurema Martinek marrazki pare bat aurkeztu zituen. Hasieran tigre moskito hitz horrekin joko bat egin nahi izan genuen. Diskoaren atzealdean mutil baten gorputza, tigre baten aurpegiarekin eta eltxo baten hegalekin kokatu dugu. Jokatzu ikusi genuen portadarako hobe izango zela aurpegi soilik agertzea eta horrela egin dugu.

Hamabi abesti horietatik zein duzue kuttunena?

"You showed me how to do"; bigarren abestia indarririk gehien duena da, talde bezala gehien identifikatzen gaituena. "Mosquito" ere gustuko dugu, melodikoa da, entzuleak single modura identifikatu dezake. Baina talde gisara gehien iden-



tifikatzen gaituena, zalantzarik gabe, "You showed me how to do" da.

"Black haired woman" abestiarekin ere bideoklipa grabatu berri dugu. Hemendik aste pare batera ikusgai egongo da.

Diskoaren grabaketari dagokionez, errepikatu egin duzue, Subiza, Montreal Studios, Hans Krüger-ekin. Gustora lortutako emaitzarekin?

Lagun batekin grabatzea da, bi-hiru astez hara joan eta lagun batekin egon. Bi egunez berarekin egon eta berak badaki zer gustuko duzun, zer nolako soinua eskuratu nahi duzun.

Hasieran Hans Krüger-engan jo genuen ona zela, material oso ona zuela entzun genuelako. Baina gaur egun, jada hirugarren diskoa izanda, berak badaki zer nahi dugun eta zer bilatzen dugun. Hasieratik burubelarri ekiten diogu lanari. Gu grabatzera sartu aurretik etxean grabatutako diskoa eraman genion, "hau da nahi duguna soinua onarekin" esanez. Berak hasieratik kantak ezagutzen ditu eta burubelarri lanean jartzen gara. Hans-ek lana serio hartzen du baina umore onarekin. Erraza da berarekin lan egitea eta oso gustura gaude.

Bestetik, diskoa Atlantan, Ameriketako Estatu Batue-

tan masterizatu dugu, Rodney Mills-ekin, Pearl Jam edo Oasis bezalako taldeekin aritutakoa. Laguntza aldetik Bayonne-Sud Aquitain Eszena Nazionalaren laguntza jaso dugu.

Duela urtebete Bartzelonara jo zenuten, bertan kokatu duzue zuen bizitzeko eta lanerako tokia. Zer nolako esperientzia izaten ari da?

Oso ona. Hasieran beldurra genuen baina nahi genuena lortu dugu, musika eta artista ugari dauden tokira joan gara...

Ez dauka bertakoarekin zer ikusirik. Badalonan bizi gara, baina hau jada Donostia baino handiagoa da. Bartzelonan asteazken batean atera eta 30 kontzertu egon daitezke. Adibidez, diskoaren aurkezpena egin genuenean igande bat zen, Bartzelonan 30 kontzertu antolaturik zeuden. www.atiza.com-en, Kataluniako musika web orrialde ospetsuan, Peachy Joke-na eguneko kontzertu gisa aurkeztu zuten. Jende pilo bat gerturatu zen eta gu harrিতa geratu ginen. Gure Tolosako kontzertuetan baino jende gehiago zegoen bertan.

2001ean sortutako banda da Peachy Joke, hasieran beste-

lako taldeen bertsoiak egiten zenituzten. Urrunegi ikusten al duzue garai hura?

Bertsioak 2001ean egiten hasi ginen, grabaketari dagokionez, Peachy Joke bezala 2005ean sortu genuen taldea. Askok aldatu dira kontuak ordutik. Lan egiteko moduan eta giroan berdin jarraitzen dugu baina alde izugarria dago lehengotik hona.

Bartzelonan bizi zaretela etxetik gertu jotzeak ilusio berezirik egiten al du?

Bai guretzako Donostiako kontzertua berezia da.

Gogo handiarekin gatoz, publiko aldetik zer erantzun egongo den jakin minez, zer jende etorriko den... Normalean hemen jotzen dugunean lagunak gerturatzen dira eta horrek ilusio gehiago egiten du.

Zuzeneko taldea zaretela esaten dute...

Batez ere aurreko diskoan eta honetan kanta dantzagarri gehiago daude, ondo pasatzen dugu eta disfrutatzen dugula transmititzen dugu. Egindakoa sentitzen dugulako egiten dugu eta horrenbestez entzuleari ondo pasatzearena kutsatu egiten diogu.

jarri zure
publizitatea
Galtzaundi
aldizkarian

Nafarroa etorbidea, 6
20400 Tolosa
publizitatea@galtzaundi.com
943 655 004
www.galtzaundi.com

Beatriz
Dekorazioa
Donostia - Tolosa

- Gortinak
- Edredoi nordikoak
- Mantak
(bat erositako beste bat opari)
- Ohazalak
- Alfonbrak etab.

Donostia
San Martin, 16
943 425 886-943 420 187

Donostia
Garbait, 8
943 420 259-943 430 947

Tolosa
Rondilla, 11
943 670 615-943 671 149

URDAIKARIAK
Altuna
HARAKINAK


Korreo, 39
Tel.: 943 671 414

20400 TOLOSA
Gipuzkoa

irakurri entzun Ikusi

Bränskint

Goizalde Landabaso



Idazleak liburu honetarako Bränskint hiria sortu du, Europa iparraldean imajina dezakegun baina, egia esan, beste edonon ere egon zitekeen irudizko hiria. Munduko hiri guztiak berdin eta ezberdin direlako. Horien tabernetako erakusleihoetatik tai gabe ikusten dugulako kale artean galdutako esperantza, aienerik ez duen mina, desioa eta, oroz gain, bizirauteko beharra.

Itxaropena


Patxi Saiz



Patxi Saizek euskal kantu tradizionalean eta kantautoreen tradizioan oinarritzen den hamaika kantuz osatutako "Itxaropena" izeneko disko berria dakarkigu. Izan ere, jorratzen diren gai guzietan itxaropena baita kantuen xede nagusia. Patxi Saizen ahotsa eta gitarra dira oinarri kantu guzietan, ahotsaren esentzia izanik ardatz nagusia.

Mugaldekoak

Fernando Bernues eta Mireia Gabilondo



Bigarren Mundu Gerrara eta Comète sarearen historia nahiko ezezagunera hurbilduko gaitu. Iparralde, Nafarroa eta Gipuzkoaren arteko muga inguruko herri txiki batean, familia bat Alemaniako frontean eroritako hegazkin-gidariak jaso eta Ingalaterrara itzultzen laguntzeko helburu arriskutsua duen sare klan-destino batean nahastuko da.

hitzordduak

Apirilaren 1etik 15era bitarteko

Kontzertuak

Batera Live. Elene eta Izaro. Apirilaren 1ean, ostiralean. 10 euro. Tolosako Leidor Aretoan. 2010eko urtarrilean EITBko Bi Gira saioko txapeldun izendatu zituzten Elene Arandia (Tolosa, 1988) eta Izaro Saizar (Berastegi, 1985). Urtebete beranduago eta luzaroan euren buruan izan duten ideari itxura emanez, taula gainera igoko dira Batera Live zuzeneko ikuskizuna Tolosan aurkezteko asmoz.



Euskerenea

Zazpi astoren gainean. Bertso ikuskizuna. Apirilaren 2an. Tolosako Zerkausian, 11.30ean. Jon Martin eta Iñaki Apalategi bertsolariak eta Larreategi anaiak trikitia jotzen.

Ahozkotasuna irakaskuntzan. Hitzaldia. Apirilaren 6an. Tolosako Kultur Etxean, 19.30ean. Mintzolako eskutik. Maitane Aiertza eta Iñaxio Usarralde.

Koldo Amestoy. Ipuin kontaketa. Apirilaren 8an. Tolosako Topic Aretoan, 20.30ean. 10

euro. Batak besteari eskua emanez kate luzean dabiltzala, hamabi jende mugimendu borobil zabaletik, kiribil batean sartzen dira poliki. Erdiratzean, hertsatzen, estutzen ari dela, aurrekoa biratzen da orduan, soka dantza osoa kanpo alde-ramateko. Urrunago beste biribilketa bat sortuko dute. Eta handik ere aterako dira, agian...

Ferian bertsotan. Apirilaren 9an. Tolosako Zerkausian, 11.30ean. Anjel Mari Peñagarikano eta Andoni Egaña.

Karaokea umeentzat. Apirilaren 9an. Tolosako Zerkausian, 17.00-18.30 bitartean.

Xentimorik gabe... Antzerkia. Apirilaren 15ean. Tolosako Kultur Etxean, 20.30ean. Ramon Agirre eta Inazio Tolosa.

Bertso Afaria

Laskorain Ikastolako Bertso Afaria. Apirilaren 8an. Usabalgoko Laskorain Ikastolan, 20.00etan. Bertsolari lanetan Amaia Agirre, Bixente Gorostidi eta Aitor Mendiluze ikasle-ohiak. Sarrerak salgai ikastolako idazkaritzan; 943 697122.

Korrika

Korrika. Apirilaren 13an. 07.20ak aldera Korrika Tolosara helduko da.



Dantza

Ari du. Oinkari Dantza Taldea. Apirilaren 15ean. Tolosako Leidor Aretoan, 22.30ean. 10 euro. "Ari du" ikuskizun berri honetan, euskal kulturaren hain presente dauzkagun dantza eta euskal literatura-ko poesiaren arteko uztarke-ta izan dugu helburu. Juan Kruz Igerabideren ahotsean errezitatuko diren poesiek, euriak duen erritmoa markatuko dute.

Afrikar dantza ikastaro intentsiboa. Apirilaren 2an. Adunako Asvinenean. Irakaslea: Ainhoa Agirrezabala. Izena emateko telefono zenbakia: 665 738081.

Erakusketa

Ni ere pertsona. Apirilaren 15a bitartean. Ibarra Kultur Etxean. SOS Arrazakeriak eta Tolosaldea Garatzenek antolatuta.

Narrea Armendariz. Pintura. Aranburu Jauregia, maiatzaren 7a bitartean.

Frontoi baten hastapenak. Fronton kafetegian. Erakusketa 35 argazki zaharrek osatzen dute, gehienak argitaragabeak. Andia Elkarteak antolatuta.



Galtzaundi 341
11ko apirilak 1

Tolosaldean [IKASTN]

Bizitza osoan zeharreko ikaskuntza

Orain errazagoa da prestatzea. Prestakuntzarako eta horrekin lotutako zerbitzuetarako leihatila bakarra duzu.

<http://www.ikastn.com>

Eskualdeko ikaskuntzarekin erlazionaturako informazio guztia ondorengo webgunean (langabetuentzako formakuntza, langileentzako formakuntza, bizitza osoan zeharreko ikaskuntzako jarduerak...)

Ikastaroaren izena Hasiera data Ordu Kopurua

Elikaduraren oinarriak txirindularitzan	2011/04/02	3
Lorezaintzako oinarriko igeltserotza	2011/04/04	20
Internet + e-administrazioa	2011/04/04	20
Paper makina (kimika)	2011/04/12	50
Eragiketa osagarriak prozesu eta segurtasunean (kimika)	2011/04/13	40
Erregulazio sistemen konfigurazioa, muntaia eta analisisa	2011/05/04	30
CNC bidezko prestaketa eta programazioa fresagailuan (Fagor)	2011/05/04	46
Datu baseen elaborazioa (Access)	2011/05/04	50
Ingeles teknikoa	2011/05/04	40

Harremanetarako pertsona: Gemma Zelaia
Kokapena: TOLOSALDEA GMLH INSTITUTUA
Santa Luzia 17 -20400 Tolosa

Telefonoa: 943.65.11.47 edo 615.775.678
Posta-e: info@ikastn.com
Webgunea: www.ikastn.com



Amalur Jardunaldiak

Apirilak 6-9.

Aurten AMALUR Jardunaldien bitartez Japoniara bidaiatuko dugu, Tolosako Ekinbide Etxeak antolatuta.

'Extralurtarren Lurralde' dokumentalaren aurkezpena. Ander Elorza. Apirilak 6. 19.30ean Topic-en.

'Japon, erabilera jarraibideak'. Sergi Ramis. Apirilak 7. 19.30ean Topic-en.

'Japonia, ez aurrera ez atzeratu geratu den potentziak nortasuna bilatzen du. Harmoniatik lehiakortasunera'. Rosa María Calaf. Apirilak 8. 19.30ean Topic-en.

Bonsai eta Suikesi Erakusketa. Apirilak 6, 7, 8 eta 9. Topic-en. Shodo Tailerra. Shodo Tailerra. Japoniar idazkera. Apirilak 9, 10.00etan, Topic-en.

Ikebana Tailerra. Loreak. Apirilak 9, 11.30ean, Topic-en.

Kenpo-Kai erakusketa. Apirilak 9.

Goardiako farmaziak

Ostirala, 1

Bengoetxea E.
(Kale Nagusia, 7)
Tolosa

Larunbata, 2

Morant R.
(Zaballarreta, 1)
Tolosa

Igandea, 3

Echeveste Jesus M.
(Gernikako arbola, 3)
Tolosa

Astelehena, 4

Azpiroz L.
Amaroz 9
Tolosa

Astearte, 5

Olarreaga I.
(Korreo kalea, 2)
Tolosa

Asteazkena, 6

Ugarte M+T.
Euskal Herria, 46
Ibarra

Osteguna, 7

Santamaria I.
(Nafarroa etorb.2)
Tolosa

Ostirala, 8

Olarreaga M.
(Martin J. Iraola, 10)
Tolosa

Larunbata, 9

Bronte C.
(korreo kalea 20)
Tolosa

Igandea, 10

Iturrioz I.
Euskal Herria, 3
Ibarra

Astelehena, 11

Olarreaga I.
(Korreo kalea, 2)
Tolosa

Astearte, 12

Bengoetxea E.
(Kale Nagusia, 7)
Tolosa

Asteazkena, 13

Azpiroz L.
Amaroz 9
Tolosa

Osteguna, 14

Olarreaga M.
(Martin J. Iraola, 10)
Tolosa

Ostirala, 15

Santamaria I.
(Nafarroa etorb.2)
Tolosa

Telefono interesgarriak

Alegia-Amezketeta-Abaltzisketa-Albiztur	Gernikako Arbola, hitzor	943 006 900
Osasun zentroa	Amarozko dispensarioa	943 672 637
Altzo	Asunzion klinika	943 675 799
Medikua	(Iarrialdiak)	943 675 390
Anoeta-Alkiza-Hernalde	San Kosme San Damian	
Medikua	geriatrikoa	943 672 932
Baliarrain	Udaltzaingoa	943 675 858
Medikua	Ur eta Argia (Tolargi)	943 650 016
	Ur zerbitzuak (aberiak)	639 352 156
Berastegi-Elduain	Iurreamendi egoitza	943 670 325
Medikua	Larrialdiak, Suhiltzaileak	112
Bidegoian	DYA	943 672 536
Medikua	Gurutze Gorria	943 674 888
Ibarra-Belauntza-Berrobi-Gaztelu-Leaburu		943 651 425
Osasun etxea	Ertzantza	943 673 022
Ikaztegieta	Tolosa Gasa	943 675 320
Medikua	Lizartza	
Irura	Medikua	943 682 077
Osasun zentroa	Orendain	
Tolosa	Medikua	943 655 595
Anbulatorioa, Iarriald.	Orexa	
San Esteban, hitzordua	Medikua	943 682 228



SARRAILGINTZA

Nafarroa etorbidea, 13-behea
20400 Tolosa
Mobila: 670 417 922
Tel./Faxa: 943 650 313

ARTESANIA

ZUEN TZART

eskuz esku
arrunta berezi bihurtu!

BERNIKA, 4 TOLOSA
ARTESANIAZUENTZART@EUSKALNET.NET
TEL. 943 650 359

TINDATEGIA



Laskorain kalea • TOLOSA
Tel.: 943 652 618



ARALAR KIROLAK

Laskorain, 7 • TOLOSA
Tel.: 943 654 916

Muxutruk

Lana

• Ordenagailuak konpondu eta eguneratzen ditut, datuen berreskurapenak merke eta etxerako zerbitzua. 644 453 621

• Ingeleseko klaseak bakarka edo taldeka. Maila desberdinak. Irakasle tituluduna. 664.16.02.68

• Sukaldari edo zerbitzari laguntzaile gisa lan bila nabil. Homologatutako titulua daukat. 671 44 66 15.

• Hortz-protetikoko tituluduna lan bila. 671 44 66 15.

Etxebizitza

• 60m²-ko pisua salgai Berazubín. Egongela handia, bi logela, sukalde eta komuna. Berritua, berogailua, sartzeko prest. 616 278 843

• Orion pisu/apartamentua salgai, garaje eta guzti, zentruan. Hondartzatik 10 minutura. Harremanetarako telefonoa: 661304125

Bikote euskalduna baserri edo borda batean alokairuan jartzeko prest. 652 715 800

Salgai

• Igini markako akordeoia saltzen da. Tainaz ertaina eta beltza. Berau eramateko gurditxoak opari. Telefonoak: 943.65.13.45 - 663.621.800

• Oruga karretila salgai. Honda HP 500, ia berria. 943.69.47.36 / 618.18.53.37

• Limosin arrazako 6-8 hilabeteko txekor idiskoa erosiko nuke zezenetarako. Kartaduna. 943694736 / 618185337



aries

Martxoak 21-Apirilak 21

Medikuak esandakoa gogoan hartu baduzu ez da arazorik egongo, kontrakoa gertatzekotan egoera zailagoa egingo zaizu. Bikotea izan baina berekin ez bazara bizi une oso pozgarriak izango dira; elkarrekin bizitzeko nahia agerian geratuko da.



taurus

Apirilak 22-Maiatzak 21

Buruan dituzun proiektu horiek martxan jartzen ausartu zaitez. Ideia onak sortu eta hauek aurrera eramateko egunak izango dira. Hori dela eta, oraindik orain mantentzen dituzun beldur horiek usatzeko unea iritsi da.



gemini

Maiatzak 22-Ekainak 21

Berri garrantzitsuak jasoko dituzu eta honek bidea emango dizu buruan duzuna egi bihurtzeko. Momentu aproposa elkarrizketa eta kontratu garrantzitsuetarako.



cancer

Ekainak 22-Uztailak 22

Aldaketa positiboak opariekin batera datoz. Orkestrako zuzendari lanetan arituko zara egun hauetan, dena zuk nahi bezala aterako da. Hala ere, gogoan izan erantzukizuna ere zuri dagokizula.



leo

Uztailak 23-Abuztuak 22

Nekatuta zaude, adimena %100ean ez dabilela uste duzu, egindako lanaren ondorioa da. Osasunari dagokionean, arazorik ez; baina noizean behin atsedeen hartzea ona dela gogoan izan.



virgo

Abuztuak 23-Irailak 22

Zortea aldeko duzula sentituko duzu. Gertaerarik abantailatsuenak eskura jarriko zaizkizu. Emaitzak uste baino lehenago helduko dira eta horrek harritu egingo zaitu.



libra

Irailak 23-Urriak 22

Maitasun kontuetatik aparte bestelakoei garrantzia ematen ahaleginduko zara, baina buruak ez dizu aginduko. Bikoteak egindakoari buelta gehiegi emango dizkiozu.



scorpius

Urriak 23-Azaroak 22

Azken hilabetetako gertakizunak medio oso nekatuta zaude. Ez zara gaitoxuko baina defentsak inoiz baino baxuago izango dituzu. Horrek osasunean bere eragina izango du.



sagittarius

Azaroak 23-Abenduak 21

Hitz egiteko, komunikatzeko grinaz zaude; hori dela eta, erlazioek onera egingo dute. Familia artean ere garai bateko kontuak argitu egingo dira. Zure bikoteakideak zerikusizuzena izango du horretan.



capricornius

Abenduak 22-Urtarrilak 20

Laneko bidaia hori bertan behera gelditu edo atzeratu egingo da. Ez zaitu gehiegi hunkituko, horrek aukera emango baituzu bestelako gauzetan aritzeko.



aquarius

Urtarrilak 21-Otsailak 20


Malguagoa izaten ikasi beharko zenuke. Aldatu ezineko zerbait gertatzen denean, egoerara egokitzen ikasi beharra dago. Kontrakoa gitea ez da batere zentzuzkoa.



piscis

Otsailak 21-Martxoak 20

Gastu gehiegi izan dituzu azken aldian, gehien bat etxearren dekorazio kontuei dagokionean. Etxean egiten ari zaren lanen aurrekontuak gainera gora egingo du eta horrek bikotearekin eztabaidak sortuko dizkizu.



ALZ. UP. HENTILLE

AZKEN EGUNAK



graduazio guztientzat
armazoiak + kristalak
77€

Hurtuetan loazko optikas, katejakin erabazgarriak. Ez ingo de gihatu besterik ezin izango duzu.

San Frantzisko, 23 • Tel. 943 69 84 70 • **TOLOSA**

MULTIÓPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan

SUPER EKO
SUPERMERKATUA

Oinezkoen eremua
Erosketak etxera
eramateko zerbitzua

Kaxa gorri bombotak
(200 gr)
3,99€



Dixan detergentea
82 dosi...
9,99€

Zumalakarregi, 4
943 65 09 01
Tolosa



**BATU
GAITEZEN**
GIPUZKOAK AURRERA EGITEKO



www.gipuzko.com

HILETAREN BALIOA

Txina Inperiala



40 URTE eman zituzten Qin Shi Huang enperadorearen hilobia eraikitzen

2,13 Km² hartzen ditu guztira mausoleoaren azalerak

700.000 LANGILE aritu ziren hori eraikitzen

7.000 IRUDI lurperatu zituzten enperadorearen ondoan, benetakoa tamaina dute eta terrakotaz eginak dira

Funeraria Vascongadan ere pentsatzen dugu pertsona bakoitzak bere neurriko hileta izan behar duela. Horregatik, alor horretan lider garenez, aukera ekonomiko guztietara egokitzen diren **Hileta Zerbitzu Packak** eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermearekin.

Berreskurazina da galdu duzuna,
baina laguntza eskainiko dizugu dena errazagoa izan dadin.



FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

25 años
en TOLOSA

www.funerariavascongada.com 24 orduko zerbitzua: 902 40 29 00

